

# I. NARRAZIO LEHIAKETA

## OINARRIAK:

### PARTAIDEAK

18 urtetik gorako egileek har dezakete parte

### HIZKUNTZA

Euskara

### AURKEZPENA

Partaide bakoitzak narrazio bakarra aurkeztu ahal izango du, eta gehieneko luzera sei foliokoa izango da, alde bakarretik idatzita. Lanak, saritu gabekoak, jatorrizkoak eta argitaratu gabekoak izan beharko dira. Gaia librea izango da.

Idazlanek izenburua edo izengoitia soilik eduki beharko dute, egilea identifika dezakeen xehetasunik gabe.

Lanarekin batera, eta kartazal itxian, egilearen datuak sartuko dira (izena, abizenak, helbidea, adina, telefono zenbakia eta, posible bada, posta elektronikoa). Kartazalaren kanpoaldean idazlanaren izenburua edo izengoitia jarriko da.

Oharra: aurkezteko baldintzok betetzen ez dituzten lanak atzera botako dira.

### AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Lanak Lemoako Udaletxean aurkeztu beharko dira, edo ondorengo helbide elektronikora bidali: [kultura@lemoa.net](mailto:kultura@lemoa.net) 2012ko apirilaren 23a baino lehen

### EPAIMAHAIA

Udalak aukeratutako literaturan adituak

### SARI BANAKETA

Sariak maiatzean egingo den aste kulturalean banatuko dira, maiatzaren 11n

### SARIAK

Honako sariak emango dira:

1. saria: 250€ eta diploma
2. saria: 150€ eta diploma
3. saria: 100€ eta diploma

Lemoako bertako 1. saria: 100€ eta diploma

Oharrak:

-Saridunen artean Lemoako baten bat baldin badago, herriko

1. saria bertoko 2. narrazio onenak eramango du

-Sariak eman gabe gera daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu

-Epaimahaiaren erabakia nahitaez onartu beharko da

# LEMOAN



LEMOAKO UDALA

KULTURA  
SAILA